

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	BARRUKO ALTZARIEN GARBIKETA	Iraupena	30
Kodea	MF0996_1:		
Lanbide-arloa	GIZARTE, KULTURA ETA KOMUNITATEKO ZERBITZUAK		
Lanbide-eremua	Gizarte-arreta		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Gainazal eta altzariak garbitzea eraikin eta lokaletan	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Zoru, pareta eta sabaien garbiketa, tratamendua eta mantentze-lanak eraikin eta lokaletan.	Iraupena	30
	Kristalen garbiketa eraikin eta lokaletan		30
	Makineria erabiliz garbitzeko teknika eta prozedurak		60
	Eraikin eta lokaletan gainazal eta altzariak garbitzeko lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0996_1. ESKU HARTU BEHARREKO ESPAZIOETAN DAUDEN ALTZARIAK GARBITZEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1 Garbitu beharreko espazioetan dauden altzariak zehaztea, eta haiek osatzen dituzten materialak ezagutzea.
- E11 .1 Garbitu beharreko espazioetan dauden altzariak osatzen dituzten materialak identifikatzea, eta dagokien garbiketa-prozedurekin erlazionatzea.
- E11.2 Altzarietan pilatzen diren hondakin-motak aztertzea eta haietan sortzen diren orbanak eta zikinkeriak identifikatzea.
- E11 .3 Altzariak osatzen dituzten materialen eta haien garbiketa-beharren arteko lotura deskribatzea.
- E11 .4 Zakarontzi batek baldintza higienikoak berreskuratzeko eta berriro erabiltzeko moduan uzteko egin beharreko jarduerak deskribatzea.
- A2 Garbiketa-erreminta edo tresnak garbitu beharreko altzarien arabera sailkatzea.
- E12.1 Garbiketa-erreminta edo tresnak deskribatzea, hauek azalduz:
- Funtzioak.
 - Erabiltzeko arauak
 - Manipulazioari lotutako arriskuak
 - Beharrezko erabilerako mantentze-lanak.
- E12.2 Erreminta edo tresnen erabilera justifikatzea, garbitu beharreko altzarien eta lan-metodoaren arabera.
- A3 Garbitzeko produktuak tratatu beharreko altzarien arabera hautatzea, eta ezaugarriak, funtzioak eta erabiltzeko moduak azaltzea.
- E13.1 Garbitzeko produktuak haien aplikazioen arabera sailkatzea, eta dituzten propietateak, abantailak, eragozpenak eta erabiltzeko moduak azaltzea.
- E13.2 Altzariak garbitzeko produktuak identifikatzea, ingurumena kaltetzen ez dutela kontuan hartuta.
- E13.3 Altzariak garbitzeko produktuen etiketa eta fitxa teknikoak interpretatzea, eta fabrikatzaileek zehaztutakoaren arabera aritzea haiek erabiltzean.
- E13.4 Kasu praktiko batean: garbitzeko produktua hautatzea altzari-motaren arabera, eta aukeraketa justifikatzea egin beharreko lanaren arabera.
- E13.5 Produktu toxikoen hondakinak ezabatzearen onurak argumentatzea, ingurumena babesteko araudia oinarri hartuta.
- E13.6 Ur- eta energia-konsumo orekatuaren ondorioak deskribatzea, erabilera arduratsua kontuan hartuta.
- A4 Altzari jakin batzuen kasuan, haien garbiketa zehaztea, kasu espezifiko bakoitzeko prozedurak, tresnak eta produktuak ezarri.
- E14.1 Garbiketa-prozedurak sailkatzea, altzariak osatzen dituzten materialen ezaugarriei dagokienez.
- E14.2 Altzariak garbitzeko kasu praktiko batean:
- Garbiketarako informazio erabilgarri edo garrantzitsua ateratzea, aurrez altzariak eta objektuak aztertuz.
 - Altzarien material-mota identifikatzea, eta bakoitzarentzako garbiketa-prozedura egokia hautatzea.
 - Zereginaren sekuentzia logikoa eta gutxi gorabeherako gauzatze-denbora zehaztea, aurreikusitako helburuak bermatuz.
 - Garbitu aurreko lanak egitea, garbiketa-lana errazteko.
 - Ingurumena kaltetzen ez duen produktua (beharrezkoa bada) eta tresna hautatzea, eta produktua erabilera- eta dosifikazio-jarraibideen arabera prestatzea.

- Lan-eremuan pertsonak izateak duen eragina aztertzea, eta pertsonak daudenean nola jardun zehaztea.
 - Prozedura, tresna eta produktua aplikatzea lortu nahi diren emaitzak lortzeko, eta lortzen direla egiaztatzea.
 - Tresnak erabiltzeko moduan mantentzea, eta haien kontserbazioa bermatzea.
- EI4.3 Identifikatu daitezkeen laneko arriskuak identifikatzea egin beharreko zereginen arabera, eta arrisku horiek prebenitzea.
- EI4.4 Lan egin den tokian kendu gabe utzitako zikin-arrastoak detektatzeko gerora nola ikuskatu finkatzea.
- EI4.5 Produktu toxikoen hondakinak ezabatzearen onurak argumentatzea, ingurumena babesteko araudia oinarri hartuta.
- EI4.6 Ur- eta energia-konsumo orekatuaren ondorioak deskribatzea, erabilera arduratsua kontuan hartuta.
- A5** Zakarrontzietan geratzen diren hondakinak kentzeko ekintzak balioztatzea, haien higienizazioa bermatzeko.
- EI5.1 Zakarrontziak funtzioaren eta edukiaren arabera bereiztea, eta haietan egingo den esku-hartzearekin erlazionatzea bereizketa hori.
- EI5.2 Hondakinak kentzeko modua zehaztea, eta hondakinak benetan atera direla eta gero ontzia garbitzen dela bermatzea
- EI5.3 Hondakinak kentzeko kasu praktiko batean:
- Poltsa manipulatzeko kontuan izan beharrekoak zehaztea, langilearen segurtasuna bermatuz.
 - Zakarrontziko hondakinak kentzea, eta haren higienizazioa bermatzea.
 - Poltsa aldatzea, eta, beharrezkoa denean, ondo jarri dela egiaztatzea.
 - Zakarrontzia gerora nola dagoen kontrolatzea, eta erabiltzeko prest dagoela egiaztatzea.
- A6** Komunen higienizazio- eta desinfekzio-prozesua deskribatzea, erabili beharreko prozedura, tresna eta produktuak zehaztuz.
- EI6.1 Komunen higienizazioak eta desinfekzioak osasun publikoa babesteko prozedura gisa duten garrantzia adieraztea, uraren erabileraren optimizazioa kontuan hartuta.
- EI6.2 Komunak garbitzeko produktu espezifikoak, haien ezaugarrien eta erabilgarritasunen arabera, alderatzen dituen dokumentu bat egitea.
- EI6.3 Garbitzeko produktuak erabiltzeko jarraitu beharreko segurtasun-baliabideak eta denbora ezartzea.
- EI6.4 Komunitateko material-euskarriak aztertzea, haietako bakoitzaren funtzionamendua egiaztatuz.
- EI6.5 Kasu praktiko batean: garbiketateknika eta -tresnak komun baten garbiketara barne hartzen diren elementuetako bakoitzera egokitzea.
- EI6.6 Komunak higienizatu eta desinfektatzeko kasu praktiko batean:
- Zereginaren sekuentzia logikoa eta gutxi gorabeherako gauzatze-denbora zehaztea, nahi diren helburuak bermatuz.
 - Aldez aurretiko zereginak egitea: aireztapena, ingurune hondakin solidoak kentzea eta abar, gero garbitu ahal izateko.
 - Komun-ontzi mota bakoitzerako tresna eskusiboa eta produktua hautatzea, ingurumena kaltetzen ez duena.
 - Produktua prestatzea erabilera- eta dosifikazio-argibideei jarraituz eta oinarritzko segurtasun-printzipioak kontuan hartuz.
 - Komun-ontzietan produktu desinfektatzaileak ematea, fabrikatzaileak ezarritako denboraz eragingo dutela bermatzea eta komun-ontzi mota bakoitzerako tresna eskusiboa erabiltzea.
- EI6.7 Komunak garbitzeko kasu praktiko batean:
- Gehigarriak, ispiluak eta paramentuak garbitzeko prozedura, tresna eta produktuak hautatzea, egokiak direla bermatuz.
 - Produktua prestatzea erabilera- eta dosifikazio-argibideei jarraituz eta oinarritzko segurtasun-printzipioak kontuan hartuz.
 - Gehigarriak, ispiluak eta paramentuak garbitzeko prozedurak gauzatzea eta haiek garbitzeko tresnak eta produktuak aplikatzea, haien higienizazioa bermatuz.
 - Komuneko paperaren, eskuetako paperaren, xaboiaren eta bestelakoen euskarriak aztertu eta betetzea, erabiltzeko moduan uzteko.
 - Zorua garbitzea, haren higienarako eta desinfekzioarako produktua erabiliz
 - Erabiltzen diren tresnak erabilera-baldintza egokietan izatea, eta haien kontserbazioa bermatzea.
- EI6.8 Egin beharreko zereginen laneko arriskuak identifikatu eta prebenitzea, toki horretan eta esku-hartze horretarako arauak kontuan izanda eta komunen higienearen eta desinfekzioaren balorazioa ahalbideetzen duten irizpideak aztertuta.

Edukiak

1. Altzariak garbitzeko produktuen erabilera

- Altzari-motak eta haien konposizioa
- Garbitzeko produktuen identifikazioa.
 - o Garbigarriak.
 - o Distira-emaileak.
 - o Produktu espezifikoak: kristal-garbigarriak, metala garbitzekoak, altzariak garbitzekoak, aire-goagarriak.
- Altzariak garbitzeko eta desinfektatzeko produktuen erabilera.
 - o Dosifikazioa eta dosifikagailu-motak.
 - o Erabilera okerraren ondoriozko arriskuak.
 - o Toxikotasun-kasuetarako jarraibideak.
- Produktuen etiketen interpretazioa eta irakurketa.

2. Altzariak garbitzeko teknikak

- Jardueren sekuentziazioa.
- Lan-inguruneak egokitzea.
 - o Ingurunearen gainean jardutea.
 - o Altzariak garbitzeko zereginak egitea pertsonak tokian bertan edota igarotzen daudela.
- Zereginen erregistro-orria betetzea.
- Altzariak garbitzeko tresnak hautatzea eta identifikatzea.
- Tresna horien erabilera eta aplikazioa.
- Xurgagailuak eta ehunezko osagaiak garbitzeko beste etxetresna elektriko batzuk.
- Garbitzeko tresnak kontserbatzeko prozesuak.

3. Komunak garbitzeko eta desinfektatzeko teknikak.

- Komunetako osagarriak eta aparatu sanitarioak.
- Komunak, bainuontziak, dutxak eta bidetak desinfektatzeko teknikak.
- Azulejuak, ispiluak eta beste material batzuk garbitzea.
- Material kontsumigarria: identifikazioa eta berritzea.
- Komun baten garbiketako produktu espezifikoak.
- Egindako lana egiaztatzeke teknikak.

4. Hondakinen kudeaketako eta tratamenduko prozesuak altzarien garbiketan

- Sortutako hondakin-motak.
- Haien tratamendua.
- Hondakinak bereiztea eta manipulatzeko.
- Hondakinen garraioa.
- Gutxieneko segurtasun-arauak aplikatzea hondakinen tratamenduan.
- Toxikotasun-kasuetarako jarraibideak.

5. Laneko arriskuak prebenitzeko neurrien aplikazioa eta segimendua altzarien garbiketan

- Garbiketarekin lotutako arrisku espezifikoak identifikatzea.
- Garbiketa-jardueraren kokapenarekin lotutako arriskuak.
- Ekipoen erabilera, alde zuzenetik identifikatu ostean.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Sartzeko irizpideak

Sartzeko irizpiderik gabe

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Gainazal eta altzariak garbitzea eraikin eta lokaletan.